


Kortatu taldearen disko «inglesa» gure artean ere argitaratu da, Oihuka disketxearen eskutik. Disko biltzaileentzako bitxi preziatu bat. Kortaturen lehendabiziko bi eleperen *melange* berezi bat zen edizio hura, azal eder bat zeramana. Bestalde, Kortaturekin jarraituz, Estatu frantsesean Bondage Records disketxearen eskutik «Kolpez kolpe» eman da argitara, edizio zaindu batez. Azala eta barruko orriak aldatzen dira. Kortatuzale porrokatuek badakite non aurkitu talde honen beste perla bat.

Kubako bidaiak aurrera doa

Dagoeneko ezaguna da euskal kulturaren «ordezkaritza» antzeko bat Kubara joateko egitasmoa zegoela. Badirudi bidaiak horrek aurrera egiten duela. Joan den asteartean, bilera bat izan zen asmoak finkatzeko. Aipa daitezke Kubara joateko baiezkotan daudela Mikel Laboa, Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Hertzainak taldea, Zumeta pintorea. Paperak eta dossierak egiten hasi dira, baina oraindik data jarri gabe dago. Hasierako planen arabera, Kubako Gobernuak taldearen egonaldia pagatuko luke, baina ez bidaiak. Hau taldeak berak hartuko du bere gain. Agian, bidaiak finantziatzeko kantaldiren bat antola dezakete.



«12»
Mikel LABOA
Lp. Elkar-212

Itzuli da. Mikel Laboaren majia itzuli da, 12 zenbakia izenburutzat duen lan berri honetan. Bost kantu alde batetik, hiru bestetik. Laburregi egiten dira ohizko minutu mugatuak. Ez dakar ustekaberik —nortasun aldaketarik— baina bai zenbait berrikuntza. Oro har, formula ezaguna zaigu: kantu herrikoi bat, bi instrumental, Bertolt Brecht-en poema bat musikaturik, hiru konposizio berri (linea sentikor horretan, Atxaga eta Sarrionandiaren testuekin) eta, azkenik, linea esperimentaleko kantu luzeska bat. Arregloi edota apaindurari dago kienez, Mikel Laboa-lñaki Sal-

Aztiaren majia

vador bikoteak aurrekoen ildotik segitzen du, formula emankor batez. Agian, jazzari bide gehiago eman diote ale honetan. Aipagarria da haizearen erabilpena (Joxetxo Silgueroen saxu eta Jose Valcarlosen tronpetaren eskutik). Aberasgarri, beharrezko.

Diskoari hasiera damaion kantu zaharra, «Lore sorthu orduko», edertasun berezi batekoa da. Bere doinuak Mikel Laboaren zain gordeta zegoela dirudie. Iragan eta oraingoa sentimendurekin lotzen ditu, artzai gazte baten hausnarketa goibelak musikatzuz. «Kirru», lehenengo instrumentala, tentsioan entzuten da, gitarraren korden joan-etorriaren arabera. Bertolt Brecht-en «Gaberako aterpea» poemaren kantua bi aurpegikoa da. Batetik, esperantza/ ezperantzarik eza jokua eta, bestetik, justizia sozialik ezaren aurreko garraisi existentziala. Thelonus Monk-en «Round Midnight» kantuan, atzean daraman taldeari uzten dio lekua Laboak. Joseba Sarrionandiaren «Lili bat» poema liluragarria denik ezin uka, bere laburrean. Baina Mikelek egiten duen bariazio sorta luzeegi gertatzen da, lehen irakurketari ezer gehitu gabe.

Bigarren aldera pasatzean, majia berri batek inguratzen gaitu. Atmosfera melodikoak ate berriak zabaltzen ditu entzulearen bihotz tipian. «37 galdera mugaz bestalde dudan kontakto bakarrari» kantuak B. Atxagaren poema —R. Ordorikaren kanturik borobilenetako baten oinarria ere— oso irakurketa partikular bat eskeintzen du, Mikel Laboaren inkomunikazio/ komunikazioaren mundua eramanaz (lñaki Salvador eta Silgueroen lan fin batetan apoiaturik). «Antzinako bihotz» diskoaren pieza klabea da, hamabigarren honi bezeko ñabardura ematea lortzen duena, seguruenik entzungarriena suertatuko dena. Testua apur bat hermetikoa bada ere, tronpetak eta pianoak lagundurik, Laboaren interpretazioa —hau da, ahots kadentziak, eternitate oihartzunak— bihotz sentikorak hausteko gauza da, disko osoari tristura kapa bat barreiatuz. Azkenik, «Cherokee», linea esperimentaleko kantu, introspekzio bat da, desagertzeko arriskua duen eta izan zezakeen herri baten arima primitiboan. Azti baten interpretazio majikoa, non cherokee indiarren lanturuak zuberotarren mintzoarekin elkartzen diren.

Pello URZELAI

■ **PREMIER.** Larunbatean, frontoian, El Alma eta Los Nikis. Gaueko 9etan.

■ **LAUDIO.** Larunbatean, Suediatik etorritako Identy taldearen kontzertua. Gaueko 9etan.

■ **AZPEITIA.** Larunbatean, Txorro morro taldeak «Se os va a caer el pelo» izeneko elepea aurkeztuko du. Gaueko 11etan. 200 pezeta.

■ **DEBA.** Larunbatean, Sokoa klubean, Amateurs taldearen kontzertua. Gaueko 11etan.

■ **AZKOITIA.** Larunbatean, HBren kanpainaren barruan, Delirium Tremens taldearen kontzertua. Gaueko 11etan. Dohanik.

■ **ONDARRU.** Larunbatean, gazte-txean, Irula taldearen emanaldia. Gaueko 11etan.

■ **ANTSOAIN.** Iruñea inguruko herri txiki honetan, Antsoaingo Kontzejoak euskararen eguna defa eta, ingandean 22an, eta arratsaldeko 7.30etan, Anje Duhalde eta Erramun Martikorena kantarien emanaldia antolatu du, bertoko parkean.

■ **SORALUZE.** Igandean, gazte-txean, Lunatics eta Depresión Hard Core taldeek joko dute. Arratsaldeko 8etan.

■ **IRUÑEA.** Igandean, anaitasuna polikiroldeagian, Radio Futura kontzertuan. Aurretik, Seguridad Social taldeak joko du. 1.500 pezeta. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

■ **OIARTZUN.** Étzi, igandean, Minxoriak taldeak giroa animatuko du arratsaldeko 8etan, herriko plazan.

HEDEN -20-10-89